



## EMAKUMEEN PARTE HARTZEA INDUSTRIAN

Industria eraldaketa izan da gaur egungo garai honen ezaugarri nagusietako bat. Gasteizen, prozesu hori XIX. mende amaiera aldera hasi zen. Heraclio Fournier Gonzálezek sortutako karten industriak leku garrantzitsua izan zuen hasieratik, eta, haren barruan, emakume kartagileen enplegua nabarmendu zen, nahiz eta emakumeek industrian lan egitea gizarte osasunerako ezin txarragotzat eta kaltegarritzat jotzen zen. Hala ere, emakume kartagileek Gasteizko gizartearen aitorpena jaso zuten, eta tokiko esparrua gainditu zuten. Horrela, Espainiako Errege Akademiaren hiztegira sartu zituzten 1925eko argitaraldian.

## PARTICIPACIÓN DE LAS MUJERES EN LA INDUSTRIA

La transformación industrial ha sido uno de los principales rasgos de la contemporaneidad. En Vitoria este proceso se inició a finales del XIX. Desde los primeros momentos, la industria del naipe fundada por Heraclio Fournier González tuvo un lugar preeminente, y dentro de ella, destacó el empleo de las naiperas, a pesar de algunas consideraciones sobre el empleo de mujeres en la industria como "algo nefasto y perjudicial para la salud social". Las naiperas recibieron el reconocimiento de la sociedad vitoriana, y trascendieron el ámbito local. Así, a partir de 1925 la Real Academia Española incorporó el oficio de naipera en el diccionario.

## EMAKUME KARTAGILEEN LANBIDEA

Emakumeek leku nabarmena hartu zuten Heraclio Fournier karta fabrikaren barruan, hasieratik gehiengoa izan baitziren. Alabaina, desberdina zen gizonen eta emakumeen lanbide karrera. Emakume kartagileak, "lanbide osagarri femeninoak" zeritzenetan aritzen ziren. Kartak inprimatu aurreko eta ondorengo lan guztiak zeuden haien ardurapean: papera hautatu eta gainbegiratzea; kartak margotzea, bernizatzea eta ebakitzea; karta sortak berraztertzea; kutxatilak egitea eta paketatzea. Zeregin horiek funtsezkoak ziren produktuaren kalitateari eusteko. XX. mendean zehar, bereizketa hori apurka-apurka desagertzen joan zen, eta emakumeak bestelako lanak egiten hasi ziren: administrazioan, laborategi kimikoan, marrazketaren eta fotokonposizioaren alorrean, eta baita makinista zereginetan ere.

## EL OFICIO DE NAIPERA

Aunque, la presencia de las mujeres en la fábrica de naipes de Heraclio Fournier, fue mayoritaria desde sus inicios, las carreras laborales de hombres y mujeres fueron diferentes. Mientras los hombres eran maquinistas, las naiperas ocupaban los "oficios complementarios femeninos". Desarrollaron las tareas previas y posteriores a la impresión de los naipes: selección de papel y supervisión de pliegos, coloreado, barnizado, corte de los naipes, revisión de barajas, realización de estuches y empaquetado. Su papel fue fundamental para mantener la calidad del producto, seña de identidad de la empresa. A lo largo del siglo XX las mujeres comenzaron a desarrollar otros oficios relacionados con la administración, laboratorio químico, dibujo, fotocomposición, etc., e incluso como maquinistas.





## LAN BALDINTZAK ETA ALDARRIKAPENAK

Fournier karta fabrikak historikoki gatazka sozial gutxi izan ditu. Alabaina, emakume kartagileen lanbideak ez ziren aintzatesten, eta prestakuntzarik gabeen kategorian sartzen ziren, eta gizonezkoen lanpostuek baino ordainsari txikiagoa izaten zuten. XX. mendearen bigarren erdian, emakume langilearen eredua finkatu zenean, emakume kartagileak mobilizatzen hasi ziren, beren lanpostuak eta lan baldintzak duinagoak izan zitezen aldarrikatzeko, bai soldaten arloan, bai igoeren eta kategorien arloan. Horrela, pixkanaka, enpresako beste arlo batzuk konkistatu zituzten, eta maila profesionalean gora egin zuten, eta kategoria eta soldata hobeak izatea lortu.

## CONDICIONES DE TRABAJO Y REIVINDICACIONES

La fábrica de naipes Fournier se ha caracterizado históricamente por una escasa conflictividad laboral. Sin embargo, los oficios desarrollados por las naiperas no gozaban de reconocimiento y eran adscritos en la categoría de no cualificados y retribuidos en menor cuantía que los puestos masculinos. En la segunda mitad del siglo XX, con el afianzamiento del modelo de mujer trabajadora, las naiperas participaron en movilizaciones para reivindicar la dignificación de sus puestos de trabajo y sus condiciones laborales, tanto en el ámbito salarial como respecto a ascensos y categorías. Paulatinamente fueron conquistando otras áreas de la empresa, ascendiendo profesionalmente, y mejorando en categoría y salario.





## FOURNIER, FAMILIA HANDIA

Fournier karta fabrikak, batzuetan, familia handi gisa funtzionatu zuen. Langileentzako soziabilitate eremu bihurtu zuen ekoizpen eremua. Enpresak berak aintzat hartu eta sustatu zituen prestakuntza eta kultura, osasuna, morala eta erlijiozkotasuna, etxebizitza, gizarte prestazioak, kirola, aisialdia, jaiak, oporrak eta bestelakoak. Hori dela eta, langileek liburutegia, ikastunen eskola, gimnasioa, senide gaixoentzako erietxea, lan mutualismoa, saskibaloi taldea, igeriketakoa, mendizaleena eta abar zituzten. Horren ondorioz, oso harreman bereziak sortu ziren langileen artean, eta talde kohesioa areagotu zen, fabrikaren barruan zein kanpoan.



## FOURNIER, UNA GRAN FAMILIA

La fábrica de naipes de Fournier se comportó en ocasiones como una gran familia. El espacio de trabajo se convirtió en un espacio de sociabilidad para sus trabajadoras y trabajadores. Aspectos como la formación y la cultura, la salud, la moral y la religiosidad, la vivienda, las prestaciones sociales, el deporte, el ocio, las festividades, las vacaciones, etc. fueron tomados en consideración y fomentados desde la propia empresa. Las y los trabajadores contaron con biblioteca, escuela de aprendices, gimnasio, sanatorio para familiares enfermos, mutualismo laboral, equipo de baloncesto, natación, montañismo, etc. Se tejieron unas relaciones muy especiales entre sus trabajadores, aumentando así la cohesión como grupo, dentro y fuera de la fábrica.





Gasteiztik, karta sortak!
Gasteizko karten historiak lotura estua du emakume kartagileekin. Emakume hauek 150 urtez zehatz-mehatz aztertu dituzte hainbat belaunaldik entretenimendua, zoria edo hordagoa bilatuz erabili dituzten kartak.
Kartak mahai gainean jarriz, hemen azaltzen da beraien lana.

¡De Vitoria, barajas!
La historia del naipe en Vitoria-Gasteiz está estrechamente unida a un grupo de trabajadoras conocidas como naiperas.
Mujeres que durante 150 años han barajeado minuciosamente las cartas con las que han jugado varias generaciones, buscando el entretenimiento, la fortuna o el ¡órdago!
Exponemos aquí su trabajo, poniendo las cartas sobre la mesa.






Bibat
Arkeologia
Fournier de Naipes
Museoa




**Arabako Fournier Karta Museoa. BIBAT**
***Museo Fournier de Naipes de Álava. BIBAT***
Aiztogile / *Cuchillería, 54* - 01001 Vitoria-Gasteiz
945 203707 - museonaipes@araba.eus
www.fourniermuseoabibat.eus

**Asteartetik larunbatera: 10:00-14:00 / 16:00-18:30**
**Igande eta jaiegunetan: 11:00-14:00**
**Astelehenetan itxita, jaiegunetan izan ezik**
**Astelehena jaieguna bada, asteartean itxita**

**De martes a sábados: 10:00-14:00 / 16:00-18:30**
**Domingos y festivos: 11:00-14:00**
**Lunes cerrado, excepto festivos**
**Martes después de lunes festivo, cerrado**

araba álava
foru aldundia diputación foral

# EMAKUME KARTAGILEAK
## memoria bizia

# NAIPERAS



## UNA MEMORIA VIVA